



## HUTSEN ZUZENKETA

**HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILEKO LANGILERIAREN KUDEAKETA ZUZENDARIAREN 2007KO EKAINAREN 13KO EBAZPENARENA. HORREN BIDEZ, 2007-08 IKASTURTERAKO DEIALDIA EGIN DA, LANPOSTUAK ZERBITZU-EGINKIZUNETAN BETETZEKO —HAUR, LEHEN ETA DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAKO IRAKASLEEKIN BETE ERE—, INGURUNE BAZTERTUAN DAUDEN IKASTETXE PUBLIKOETAN ETA/EDO ESKOLARI NEKEZ EGOKITZEN ZAIZKION IKASLEAK DITUZTENETAN**

2007ko ekainaren 13ko Ebazpenaren bitartez 2007-08 ikasturterako deialdia egin da, lanpostuak zerbitzu-eginkizunetan betetzeko —haur, lehen eta derrigorrezko bigarren hezkuntzako irakasleekin bete ere—, ingurune baztertuan dauden ikastetxe publikoetan eta/edo eskolari nekez egokitzen zaizkion ikasleak dituztenetan.

Deialdiaren I. eranskinean zehaztu dira deitutako plazak eta horien artean ez dira sartu beharreko plaza batzuk.

Horiek horrela, eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren egitura organikoa ezarri duen urriaren 10eko 222/2001 Dekretuaren 10. artikulua xedatu duenaren arabera, honako hau

### **EBATZI DUT:**

**Lehena.-** I. eranskinean deitutako plazen artean sartzea honako hauek:

GOYA LHI: Euskerako plaza bat HE2 duena  
ARTATSE LHI: Lehen Hezkuntzako plaza bat HE1 duena (d/g)  
Euskerako plaza bat HE2 duena  
SAN ANTONIO LHI: Ingeleseko plaza bat HE1 duena  
Lehen Hezkuntzako plaza bat HE2 duena  
ETXEBERRI BHI: Gaztelaniako plaza bat HE2 duena

Vitoria-Gasteiz, 2007ko ekainaren 15a.

LANGILERIAREN KUDEAKETA ZUZENDARIA

Itziar GARAIZAR AGIRRE